

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresan hainbat funtsezko jarduera bete beharko ditugu kalitatezko eta segurua den produktu bat edukitzeko, hau da, funtsezko jarduerak ezinbestekoak dira funtsean gure balio proposamena aurrera ateratzeko. Jarduera hauen artean, produkzioa, arazoak konpontzea eta plataforma eta sareko jarduerak daude.

Jarduera hauek egiteari esker, lau gauza lortuko ditugula uste dugu. Lehenik eta behin, gure enpresaren balorezko proposamena garatzea lortu nahi dugu. Horrez gain, bezeroarengana iritsi nahi dugu, hau da, bezeroak gure produktuan konfiantza edukitzea eta bezero berriak lortzea. Gure hirugarren nahia bezeroarekin harreman bat sortzea da horrela gure zerbitzuak erabili dituen edo erabili nahi dituen bezeroak gure konfiantza edukitzeko. Azkenik, diru-sarrerak lortzea ezinbestekoa dela iruditzen zaigu gure zerbitzuak hobetzen jarraitu ahal izateko eta zerbitzu horiek beste herrialde batzuetara eraman ahal izateko.

Produkzio jarduerari dagokienez, gure kabinaren diseinua arkitekto batek sortuko du, baina aurreikusten dugu laukizuzen eta landetxe itxura izango duela. Kabinaren diseinua sortu ondoren, kalitatea bermatzeko Europako Kalitatezko Kontrola pasatzen duela bermatuko dugu. Horrela, gure kabinak seguruak diren jakingo dugu. Bestetik, garbitzaile enpresa bat kontratuko dugu gure kabinak egunero garbitzeko eta informatiko bat gure webgunea kudeatzeko. Hasieran, Madrilgo aireportuan jarriko ditugu gure kabinak (Espainiako hiriburu baita, aireportu garrantzitsuena) eta 8 kabinekin hasiko gara, baina negozioarekin etekinak ateratzen baditugu Espainia osoko aireportuetara hedatzea da gure ideia.

Bigarren jarduera mota, arazoak konpontzeko jarduerak dira. Honetarako, komunikazio kanalen atalean azaldutako bezeroekiko harreman pertsonaletaz baliatuko gara. Bezeroek gure zerbitzuak erabiltzeko garaian izan ahal dituzten arazoei soluzioa

bilatzeko. Honetarako, telefono zenbaki bat izango dugu bezeroen eskura, haien arazo edo edozein duda guri komunikatzeko, eta soluzio bat lortzeko. Gainera, aireportu handienetan, harrera bat izango dugu, telefonoz deitu izan beharrean, bertara gerturatu ahal izateko. Baina bigarren hau hasieran ez dugu gauzatuko, aurrerago gure zerbitzuak oraindik ere anitzagoak izatea nahi dugu, baina uste dugu hasieran ez dela posible nahi dugun guztia gauzatzea. Hobeto denboraren baitan hobetzen joango gara. Gainera, aireportu batean egonda, hainbat zerbitzu aireportuak berak eskaintzen ditu, adibidez botikinak edo desfibriladoreak, etab.



Azkenik, plataformak edo sareak izeneko hirugarren jarduera mota gauzatuko dugu. Hontarako, informatiko bat kontratatuko dugu, gure enpresaren jarduera hauek profesional batek kudeatzeko. Aplikazio bat sortuko dugu, gure zerbitzuak erreserbatu eta erabiltzeko



oso erabilgarri eta erabilerraza izango dena. Gainera, funtsezko sozioetate eta harremanen atalean azaldu genuen bezala, Play Storeekin harremanetan jarriko gara aplikazioa aurrera ateratzeko. Horrela enpresaren eta bezeroen arteko erlazioa oso praktikoa eta azkarra izango da, beraz

bezeroak gustura egongo dira gure zerbitzuekin eta berriro errepikatuko dute.